

Eneperi eta Bakio

Dagonilaren 31ko zoritxarreko albistea dala-eta, barriro egon da gure erria kaze-tarien begiradapean. Kazetari askok, artean euskal egunkarietakoak be, bein eta barrian erabilten izan dabe, oker be oker, “Eneperi” izena Bakioko leku edo inguru jakin baten ganean idatzi edo berba egite-rakoan. Alan bada, ondoko asteko albiste-etan olangoak irakurri eitekezan, erderaz, egunkariotan: “la zona de Eneperi” edo “fiestas del barrio de Eneperi”. Oker, sano oker!

Jakin beie kazetariok eta irakurleok, “Eneperi” Bakion urteko egun bat dana, dagonilaren 31, atan be, eta egun orretan “Eneperi eguna”, au da, “Eneperi” jaie-guna ospatuten dana Bakioko jatorrizko **Oruezarreta (Úsarreta, erriak agoz)** ize-neko inguruan antxinarik. Zetzago esanda, “Ene-peri eguna” **Oruezarretako landan (Úsarretako landie)** egiten zan. Bakion ezeze, Mungiako Atela auzoko San Anton eta Llona auzoko Santa Madalen baseleizen inguruan be “Eneferiak” ospatuten



ditue, dagonilaren 31n baten eta irailaren 1ean bestean. Alan bada, euskal egunkarietako kazeta-riak “la zona de **Oruezarreta**” edo “en fiestas de Eneperi en el barrio de **Oruezarreta**” idatzi bearko eben goikoen orde. Bakioko aborigenak ez dabe orretan utsik egiten.



Oruezarreta esan ordez, “Eneperi” esaten asi ziran oin dala urte mardotsua errira etorten ziran udatiar maketo integragatxak, jaia eta lekua naasteta. Urteotan ganera, euren artean okerkeria ori zabalduz joan da, aitaturako lango mass mediak olangoak irunsi eta zabaldu artegino. Erriko beste lekuizen batzukaz jazoten dan lez, deseuskaldunizazino bi-dearen adibide nabaria dogu au, ez leba txikerreko galtzea bertokoentzako.

Oruezarreta (Úsarreta) izenari jagokonez, esan bear da jatorrizkoa dala, eta ez Bakioko udalak darabilan **Urizarreta** izena (agoz, **Uísarreta**-edo izango zan-eta). **Urizarreta** izena 18. gizaldiaren asikeran leenengoz idatzita agertu arren, 19. gizaldian asi zan erabilten sarri, erdal administrazioak sortuta, benetako eta ordura arteko **Oruezarreta** izena alboan itxi eta aaztuz. Gorago aitatu dogun lez, Bakioko erritarrak, **San Pelaio** auzokoak batez be, agoz, **Úsarreta** esaten deutsee ango inguru eta baserriari. Bermeotarrak ostera, agoz, **Olbísarreta**. Bata zein bestea, jatorrizko **Oruezarreta** izenetik

datoz. Azentua da kontu onetan giltza. Alan bada, Bakioko erabilkeran, esaterako, euskal fonetikearen legeak ezarrita, olangoren bat izan eitekean orduko bilakaerea:

Oruezarreta → Orusarreta → Urusarreta → Uusarreta → Úsarreta

Bermeokoan, ostera:

Oruezarreta → Orbesarreta → Orbisarreta → Olbísarreta

Dana dala, euki beie gomutan artikulu onen irakurleak, bertan **Oruezarreta (Úsarreta)** ingurua, **Oruezarretagana (Úsarretagane)**, **Oruezarreta (Úsarreta)** baserria, **Oruezarretako landea (Úsarretako lándie)** eta **Oruezarretako iturria (Úsarretako itxúrridxe)** lekuizenak bizi-bizirik dirauena oindinokarren bakiotarren agoetan. Noz artean, baia?

Iniaki MARTIARTU
BAKIO 2012.09.05

